

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 43/2018 Foru Dekretua, irailaren 4koa. Onestea diru laguntza haue-  
tarako deialdia eta bera arautzen duten oinarriak: Arabako lurralde historikoko toki erakundeek  
ustekabekoei eta larrialdiko obrei aurre egiteko diru laguntzak, eurek ezin aurre egiteagatik  
ustekabeko egoeren ondorio izanik**

Foru aldundiaren gobernuaren legegintzaldiko helburuetako bat lurralde oreka eta garapen ekonomikoa erdiestea da. Horretarako, laguntza publikoa erabili behar da toki erakundeek beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei ahalik azkarren aurre egin ahal izateko.

Dirulaguntza hauen helburu nagusia Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei sortzen zaizkien ezustekoek eta larrialdi obrek eragiten dituzten gastuak finantzatzen laguntzea da. Honako hauek joko dira ezustekotzat: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta toki erakundeek berehala finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoa, baldin eta horiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu. Dirulaguntza hauen funtsa da toki erakundeei laguntza publikoak ematea larrialdi jakin batzuetan, hain zuzen ere presakotasuna dela eta beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei aurre egin ahal izateko.

Kontuan edukita dirulaguntza hauek eskuratzeko publikotasun, lehia eta objektibotasun printzipioak bermatzen dituzten oinarri argiak eta zehatzak ezarri behar direla, eta 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, xedatzen dutena aplikatuz, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiteko emango zaizkien dirulaguntzak arautuko dituzten oinarriak aurkezten dira. Dirulaguntza jasotzeko pertsona juridikoei bete beharreko baldintzak deialdian ezarriko dira. Halaber, betekizun guztiak betetzen dituzten Arabako Lurralde Historikoko tokikoko erakundeentzako dagokion deialdia aurkezten da.

Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duenak, 17.1 c) artikuluan xedatutakoarekin bat, horien presazko izapidetzeari dagokionez, egoera ezohikoa da eta ezin izan da aurretiaz aurreikusi, hasierako aurrekontuan ez baitzegoen dagokion partidari. Gainera, diru-laguntzaren izaera bera espedientearen presazko izapidetzearen ondorio da.

Oinarriak eta deialdia idazteko, kontuan hartu da martxoaren 22ko 3/2007 Legeak, emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerakoak, eta otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak, ezarritako arau esparrua.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik, diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailako foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreken Sailak lehia askearen bidez esleitzen dituen diru-laguntzen arloan aplikagarri diren oinarri arautzaile orokorrak: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta

larrialdi obrei aurre egiteko emango zaizkien dirulaguntzak. Oinarriok dekretu honen eranskinean bildu dira.

Bigarrena. Onestea Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak lehia askeko araubidean emango dituen diru-laguntzak emateko deialdia. Diru-laguntza horien xedea da Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei laguntzea beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei aurre egiten. Oinarri horiek dekretu honen I. eranskinean daude, eta Arabako Foru Aldundiko 2018ko aurrekontuko 1.500.000,00 euroko zenbatekoan. Deialdia espedienteari lotuta geratu da eta dekretu honen II. eranskinean dago.

Hirugarrena. Diru-laguntzak Arabako Foru Aldundiaren 2018rako "10.2.98 1700 762.90.05 Larrialdi Obrak" (10-268 lerroa) izeneko aurrekontuaren kargura emango dira.

Laugarrena. Aldatzea Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 29ko 821/2017 Erabakiaren bidez onartu zen Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren eranskina, ebazpen honekin batera dagoen III. eranskinaren edukia gehituz.

Bosgarrena. Espedientea izapidetzea presazkotzat jotzea.

Seigarrena. Foru Dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 4a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren saileko diputatua*  
**MARÍA PILAR CARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Orekaren zuzendaria*

**IÑAKI GUILLERNA SÁENZ**

## I ERANSKINA

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak emango dituen dirulaguntza hauek arautzen dituzten arau orokorrak: Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei beren kabuz finantzatu ezin dituzten ezustekoei eta larrialdi obrei, pertsonak arriskuan jartzen edo jarri ahal dituztenei, aurre egiteko emango zaizkien dirulaguntzak

### 1. Xedea eta aplikazio eremua

Dekretu honen bitartez Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei aurreikusi gabeko inbertsioei eta larrialdi obrei aurre egiteko aurrekontuko kredituen kargura emango dizkien dirulaguntzak arautzen dituzten arau orokorrak ezartzen dira.

Honako hauek joko dira ezustekotzat: aurrekontuan kreditu nahikorik eduki ez eta Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei berehalak finantzatu ezin dituzten betebeharrak ekonomikoak, baldin eta horiek ez betetzeak pertsonak arriskuan jartzen baditu edo jarri ahal baditu.

Obrak herriguneetan egin behar dira edo beharrezkoak izan behar dira etxebizitzak edo bestelako higiezin batzuk babesteko. Obrak egingo diren higiezinak tokiko erakundeenak izan behar dute eta obrek obra publiko kontzeptura egokitu beharko dute.

Honako hauen ondoriozko betebeharrak ekonomikoak onartuko dira dirulaguntzarako:

a) Gertakari naturalek egiten dituzten kalteak.

b) Araudien aldaketek, eskumen hartzeek edo administrazio publikoen ebazpenek sortzen dituzten betebeharrak.

c) Obretan estankotasuna, oreka eta segurtasuna bermatzeko egin beharreko aldaketak, hasieran aurreikusi ezin izan direnak.

d) Aurreikusten gaitz direlako aurrekontuan ezarri ezin diren gertaerak eta ezinbestean gertatzen direnak.

e) Etxebizitzak edo haietan bizi direnak babesteko egin beharrekoak.

Inolaz ere ez dira onartuko betebeharrak hauek: interesak, errekareruak, zehapenak (administratiboak zein penalak), ez prozedura judizialak gastuak.

Dirulaguntzaren xede den jarduketa egiten denean toki erakundeak ahaleginak egin beharko ditu oztopo arkitektonikoak eta komunikazio oztopoak ezabatzeko, egonez gero.

## 2. Printzipio orokorrak

Ematen diren dirulaguntzak honako printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

– Publikotasuna, gardentasuna, lehia, objektibitatea, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.

– Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzeko.

– Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orearen Sailak baliabideak efizientziaz esleitzea eta erabiltzea.

– Toki erakundeek, diru-laguntza hauen onuradun izan daitezkeenek, Emakumeen eta Gizoneen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 3. artikuluan ezartzen duenaren arabera jokatu behar dute, eta bertan jasotako oinarriko printzipioak bete behar dituzte; horrez gainera, lege horretan bertan esleitzen zaizkien eskumenen eta egitekoen arabera dagozkien betebeharrak bete behar dituzte. Hain zuzen ere, diruz lagundutako xedea betetzeko sinatzen diren administrazio kontratuetan Emakumeen eta gizoneen berdintasunerako 4/2005 Legearen 20.2. eta 3. artikulua aplikatuko dira. Ondorioz, kontratua betetzeko baldintzen artean adjudikaziodunaren betebeharrak hau ezarriko da: prestazioa egitean emakumeen eta gizoneen berdintasuna sustatzeko neurriak aplikatu beharra, kontratuen legeriarekin bat etorritik, baldin eta organo eskudunak ezarri badu kontratazioan neurri hori aplikatu behar dela.

## 3. Erakunde onuradunen baldintza orokorrak

Foru dekretu honetan ezartzen diren dirulaguntzak Arabako Lurralde Historikoko udalentsat eta kontzejuentzat dira.

Onuraduntzat joko dira dirulaguntza emateko moduko egoeran dauden pertsona juridikoak edo oinarri arautzaileetan eta deialdian ezartzen diren inguruabarretan daudenak, baldin eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, dirulaguntzengan, 11/2016 Foru Arauan eta deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Dirulaguntza eskuratzeko behar diren baldintza bereziak eta horiek egiaztatzeko modua deialdian zehaztuko dira.

Ezin dira onuradun izan azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, IV. tituluan adierazitako arau-hausteren bat dela eta zehatu diren erakundeak, ez eta Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumeen eta gizoneen berdintasunerakoak, eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak, emakumeen eta gizoneen berdintasun eraginkorrerakoak, jasotako egoeretan daudenak ere.

## 4. Eskerak aurkeztea: non eta noiz

4.1. Eskerak aurkezteko epealdia deialdian zehaztuko da, eta dagokion deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Eskaerak deialdiaren eranskinean argitaratuko den ereduaren arabera egin behar dira eta diputatu nagusiordeari eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatuari bidali behar zaizkio. Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean aurkeztu ahal izango dira (Probintzia plaza, 5, Gasteiz), bai eta Foru Aldundiaren beste erregistro batzuetan eta itundutako udalen erregistro orokorretan ere. Nolanahi ere, horrek ez du eragozten urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezartzen duena.

Eskaera arrazoituarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Dirulaguntzaren beharra sortzen den arloko eskumena daukan organoak egindako txosten teknikoa.

b) Dirulaguntza eskatzen den jarduketa egiteko aurrekontua, xehatuta (tokia, kapituluak, obra unitateak...). Behar den kasuetan, lege gaitasun nahikoa daukan teknikariak egindako proiektu tekniko baloratua.

c) Aurrekontuko kreditua nahikoa ez dela frogatzen duen txostena.

d) Aurrekontua aldatu ezin dela azaltzen duen txostena. Aurreko 1. artikuluko 3. idatz zatiko a) letran azaltzen bada, ez dago txosten hau aurkeztu beharrik.

e) Espedientea eragin duen gertaeraren frogagiria.

f) Eskatzaileak xede bererako nazioko zein nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu baten dirulaguntzarik, laguntzarik, diru sarrerarik edo baliabiderik jaso badu, horren berri ematen duen ziurtagiria, Idazkaritzak egina.

4.2. Ezustekoa eragin duena 1.3 artikuluko a) eta d) letretan azaltzen direnetakoa bada, aurreko idatz zatiko agiriak aurkezteaz gainera honako hauek frogatu beharko ditu eskatzaileak:

a) Kalteak gertatu direla, argazkien bidez.

b) Ukitutako zonak ondo mantenduta daudela.

c) Jarduketaren xede den ondasunaren titulartasuna.

4.3. Ezustekoa 1.3 artikuluko d) letran azaltzen dena bezalakoa bada eta beraz ez badago 2. idatz zatiko a), b) eta c) letretan aipatzen direnak frogatu beharrik, eskaerarekin batera hori frogatzen duen agiria aurkeztu behar da.

4.4. Nolanahi ere, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak aurkeztutako eskaerak behar bezala ulertzeko eta ebaluatzeko behar dituen informazio osagarri guztiak eskatu ahal izango ditu.

Baldin eta aurkeztutako eskabideek ez badituzte betetzen adierazitako baldintzak, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak interesdunei eskatuko die konpon dezatela hutsa edo aurkez ditzatela aginduzko agiriak, eta adieraziko ezen, osterantzean, artxibatu egingo dutela eskaera, adituz atzera egin dutela beren eskaeran.

4.5. Nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza.

4.6. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikoeetan ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

## 5. Deialdiaren ebazpena

5.1. Laguntzak eskaeren aurkezpen hurrenkeraren arabera esleituko dira, deialdirako ezarritako saldoa edo deialdian ezartzen den aldia amaitu arte.

5.2. Balorazio batzorde batek aztertuko ditu eskaerak. Batzordearen osaera: Lurralde Orekako zuzendaria burua izango da, Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako bi teknikari izango dira, eta idazkari lanetan Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko burua ariko da.

Eskaerak kide anitzeko organo batek aztertuko ditu, oinarri arautzaileetan eta deialdi honetan xedatzen dena betetzen den egiaztatzeko. Organo horretako kideak deialdian zehaztuko dira.

Batzorde horrek laguntzak emateko proposamen txostenak egingo ditu, eta gastuak baimentzeko, xedatzeko eta agintzeko ahalmena daukan organoak laguntzak ematea edo ukatzea ebartziko du deialdian ezartzen den epealdiaren barruan.

5.3 Diru-laguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie eskaeran agertzen den egoitzan, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearen Legeak 42. artikuluan xedatzen duenaren arabera.

5.4 Eskatzaileari ez zaio entzunaldirik eskainiko, zeren eta ebazpenak emateko eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino ez baitira aintzat hartuko.

5.5. Dirulaguntza eskaerari baiezkoa ematen bazaio, ebazpenean datu hauek agertuko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik.

5.6. Dirulaguntza emateko edo ukatzeko ebazpena eskatzaileei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 41. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duen bezala.

5.7. Ebazpenak administrazio bidea amaituko du. Beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailearen 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatzen duenaren arabera. Hori egiteko bi hilabeteko epealdia egongo da ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertuko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 123. eta 124. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritik.

## **6. Dirulaguntzak egotziko zaizkien aurrekontuko kredituak, dirulaguntzen zenbatekoa eta zenbatekoa ezartzeko aplikatuko diren irizpideak**

6.1. Dirulaguntzak Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailaren urteko aurrekontuko programa honetako kredituari egotziko zaizkio: "lurralde oreka gehitzeko ekimenak"

6.2. Deialdietan dirulaguntza bakoitzaren zenbatekoa ezarriko da, dirulaguntzaren xedea kontuan hartuta. Toki erakunde bakoitzak ezin izango du jaso 500.000,00 euro baino gehiago.

6.3. Ez badago modurik zenbatekoa zehazteko, deialdian horretarako irizpide objektiboak ezarriko dira, eta behar izanez gero, dirulaguntzen haztapenerako irizpideak ere bai, haien xedea kontuan hartuta. Irizpideetako bat nahitaez izan behar da aurrekontuan dirua baliagarri egotea.

## **7. Dirulaguntza jasotzen dutenen betebeharrak**

7.1. Dirulaguntza jasotzen dutenek:

a) Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailari eskatzen duen informazio guztia eman behar diote.

b) Dirulaguntza osoa erabili behar dute haren xede den jarduketara gauzatzeko.

c) Xede bererako jasotzen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide guztien berri eman behar dute.

d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinarazi behar dizkiote dirulaguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretan gertatzen diren aldaketa guztiak.

7.2. Eskatzaileak aurretik xede bererako jaso badu oraingoarekin bateragarria ez den beste dirulaguntza bat, eskaeran adierazi beharko du. Halako kasuetan, onuradunak baldintza bat bete beharko du dirulaguntza ematen dion ebazpenak ondorioak sortzeko: aurretik jasotako dirulaguntzei uko egin beharko die, eta diru publikorik jaso badu, itzuli egin beharko du.

7.3. Dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera, ezin da izan jardueraren kostua baino gehiago. Dirulaguntzaren jasotzaileak horren frogagiria aurkeztu beharko du.

## **8. Gastu onargarriak**

8.1. Gastu onargarriak izango dira dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako epealdiaren barruan proiektua edo jarduera gauzatzeko beharrezkoak izanik egiten direnak, baldin eta behar bezala justifikatzen badira.

8.2. Interesdunak eskatu ondoren, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailak, foru diputatuaren foru aginduaren bidez, aurkeztutako aurrekontuko aldaketak onartu ahal izango ditu, kontuan hartuta dirulaguntza emateko kontuan hartu diren inguruabarrak aldatzearen ondorioz ebazpena aldatzea ekar lezakeen zerbait gertatu dela.

8.3. Ez dira kontuan edukiko onartutako aurrekontua ehuneko 20 baino gehiago handitzen duten kapitulu berriak eranstea dakarten aldaketak, ez eta kapitulu bakoitzerako onartutako aurrekontua ehuneko 50 baino gehiago dakarten aldaketak ere. Aurrekontuko kapituluetakoa kopuruak murriztuz gero, baldintzak ez betetzeaz eta itzulketez ezartzen dena aplikatuko da. Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inolaz ere gehituko.

8.4. Gastu bat egintzat jotzeko ez da beharrezkoa izango gastuen justifikaziorako finkatutako epealdia amaitu aurretik ordaindu izana.

8.5. Baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduketaren zenbatekoa azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, sektore publikoko kontratuenak, kontratu txikietarako ezartzen duena baino gehiago bada, toki erakundeak gutxienez hiru hornitzailei eskatu beharko die eskaintza egiteko zerbitzua egiteko edo ondasuna emateko konpromisoaren kontratua sinatu baino lehen, honako kasu hauetan izan ezik: gastuen ezaugarri bereziak direla eta merkatuan ez dagoenean ondasun edo zerbitzu hori egiten edo ematen duen entitate nahikorik; gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin denean. Aurkezten diren eskaintzen arteko hautapenean kontuan hartuko dira eraginkortasuna eta irizpide ekonomikoak.

8.6. Dirulaguntzaren zenbatekoa, nazioko zein nazioarteko beste administrazio publiko batzuek edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bes-telako diru sarrerekin batera, ezin da izan inolaz ere onuradunak egin beharreko jardueraren kostua baino gehiago.

## **9. Xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia**

Kasu berezietan, eta aurretik bidezko justifikazioa onartuta, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailak dirulaguntzaren xedea gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia luzatzea onartu ahal izango du. Luzapenaren iraupena kasuan kasuko inguruabarren arabera finkatuko da; nolana ere, gehienez epealdia 6 hilabete luzatu ahal izango da, interesdunak hasierako epealdia amaitu aurretik eskaera justifikatua aurkeztuz gero.

## **10. Dirulaguntzak justifikatzea eta ordaintzea**

10.1. Toki erakundeak ordainketa eskaera bidali beharko du Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Sailera jarduera gauzatzeko eta obligazioa onartzeko epealdia amaitu ondoko hiru hiletan, eta horrekin batera honako hauek ere bai:

a) Gastuen fakturak, eta azken ziurtagiria, egonez gero. Fakturak (edo ziurtagiria) banakatu egin behar dira, eta xehetasunak (tokia, kapituluak, obra unitateak...) onartutako aurrekontuak berak izan behar dira.

b) Hartutako obligazioak onartzeko erabakia; bertan honako datu hauek agertu behar dira: aurrekontuko partida, data eta kopurua. Gainera, berariaz adierazi behar da gastuak dirulaguntzaren xede den proiektuari dagozkiola. Ziurtagiri horren ordean honako agiri hau aurkez daiteke: kontabilitateko agiria, organo eskudunek sinatua, gastuak dirulaguntzaren xede den proiektuari dagozkiola frogatzen duena.

c) Eskatzaileak xede bererako dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideren bat jaso badu nazioko zein nazioarteko administrazio, erakunde publiko edo entitate pribatu batek ematik, horren berri ematen duen adierazpena.

d) Deialdiaren publikotasunaren frogagiria.

e) Onetsitako aurrekontuan aldaketarik onartu bada, aldaketa bakoitza justifikatzen duen dokumentazioa.

f) Kontratazioaz 8. zenbakian ezartzen dena bete dela frogatzen duen dokumentazioa.

10.2. Dirulaguntza ordaindu aurretik toki erakundeak frogatu beharko du dirulaguntzaren xede den jarduera, proiektua edo helburua egin edo lortu dela. Dirulaguntzaren zenbatekoa justifikatzen den kopuruaren proportziozkoa izango da. Hala ere, konturako ordainketak egin ahal izango dira justifikazio partzialak jaso ahala.

10.3. Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak dirulaguntzaren behin betiko likidazioa egingo du jardueraren, proiektuaren edo helburuaren amaierako kostua oinarritzat hartuta.

10.4. Dirulaguntzaren araudian ezarri ahal izango da alde aurreko eta konturako ordainketak egin daitezkeela foru araudiak ezartzen duenaren arabera.

Aurrerakinaren ordainketa, dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten bada, deialdiaren ebazpena ematen den egunetik aurrera egingo da.

Aurrerakinik badago, gainerakoa dena batera ordainduko da egindako gastuak, behar bezala zerrendaturik, justifikatu ondoren. Ordaintzen den kopuru horretatik aurreko paragrafoan aipatutako "aurrerakina" kenduko da. Guztirako gastuak justifikatzeko epealdia gastuak justifikatzeko ezarritakoa bera izango da.

Lortutako dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu direla frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin moduan ordainduko da dirulaguntza.

10.5. Beranduenez ere dirulaguntza eman eta hurrengo ekitaldiko otsaileko azken ostiralerako aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten gastuen frogagiriak.

10.6. Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoak, informatikoak eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin bat etorritik, faktura elektronikoak gastuak justifikatzeko erabili ahal izango dira.

Halaber, faktura elektronikoak aurkeztuz gero, haien formatua bat etorri behar da Factura-e eta Ef4ktur estandarrekin. Elektronikoki sinatutako beste edozein agiri aurkeztuz gero, @firma plataformak onartzen dituen ziurtagiriak onartuko dira.

10.7. Adierazitako epealdian aipatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, ordainketa kredituak baliogabetuko dira, eta "konturako ordainketa" moduan jasotako diru kopuruak itzultzeko espedientea abiaraziko da.

## **11. Dirulaguntzak pilatzea eta haien arteko bateragarritasuna**

Dirulaguntza hauek bateragarriak dira xede bererako beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten dirulaguntza, laguntza, diru sarrera eta baliabide guztiekin, baina denen baturak muga dauka: egin beharreko jardueraren kostua.

## 12. Oinarriak ez betetzea eta diru laguntza itzultzea

12.1. Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauan, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrearen Erregelamendua onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan ezarritako kasuetan jasotako dirulaguntza itzuli beharko da.

12.2. Onetsitako dirulaguntza jaso eta gero itzultzen diren diru kopuruak zuzenbide publiko sarrerek izango dira, eta abenduaren 18ko 53/92 Foru Arauak, ekonomia eta aurrekontu araubidearenak, II. tituluko I. kapituluan ezartzen duenaren arabera kobratuko dira.

12.3. Honako irizpide hauek ezartzen dira dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen ez diren kasuak mailakatzeko:

a) Emandako dirulaguntzaren xedea ez gauzatzea eta obligazioa ez onartzea ezarritako epealdiaren barruan: emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Modu partzialean gauzatzea dirulaguntzaren xedea eta onartzea obligazioa epealdiaren barruan: gauzatu gabeko zatiari dagokion dirulaguntza zatia galduko da, dirulaguntzaren xede den jarduketa eginez gero (bestela, dirulaguntza osoa galduko da).

c) Gastuak ez justifikatzea edo behar bezala ez justifikatzea, 10. idatz zatian ezartzen denaren arabera: emandako dirulaguntzatik justifikatu ez den zatia galduko da. Hori dela eta, ezarritako epealdian onuradunak justifikazioa aurkezten ez badio administrazio organo eskudunari, horrek errekerimendua egingo dio hamabost eguneko epealdi luzaezinean aurkezteko.

Justifikazioa aurkezten ez bada idatz zati honetan ezartzen den epealdiaren barruan, emandako dirulaguntzatik justifikatu ez den zatia galduko da.

12.4. Aurreko idatz zatiko kasuetan, emandako dirulaguntzaren zenbateko osoa edo zati bat ordaindu bada, printzipala eta ordainketa egunetik itzuli behar dela erabaki arte sortutako berandutze interesak ordaintzeko eskatuko da.

12.5. Toki erakundeak ordainketa gutun baten bidez itzuli ahal izango du jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat, Aldundiak aurretik errekerimendurik egin gabe. Horrelako kasuetan ez da eskatuko berandutze interesik.

## 13. Egiaztapena

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko foru diputatuak dirulaguntza kudeatzen dituen unitate organikoaren ekimenez egiten diren deialdiak garatzeko bidezkotzat jotzen diren ebazpenak emango ditu. Gainera, onuradunek emandako datuak egiazkoak direnez eta oinarri hauetan ezartzen dena betetzen dutenez egiaztatzeko eta horretara behartzeko behar diren egintzak abiarazi ahal izango ditu.

Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute berek egindako jardueri buruz Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak eskatzen dizkien datu eta dokumentu guztiak emateko. Era berean, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Kontuen Euskal Epaitegiak edo eskumena duten beste erakunde batzuek eskatzen dizkieten informazio guztiak ere eman beharko dituzte.

## 14. Interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioaren inguruan sortzen diren zalantzak Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak ebartziko ditu.

## 15. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.



### 16. Araudi aplikagarria

Oinarri hauetan xedatzen ez den edozertarako honako arau hauek aplikatuko dira: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzkoa; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, azaroaren 17ko 38/2003 Legea Orokorra, dirulaguntzena, onartzen duena; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko aurrekontu araubide ekonomikoarena; indarrean dagoen aurrekontu antolamenduko foru araua; 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearena; eta aplikagarriak diren gainerako arauak.

### 17. Indarrean jartzea

Oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

## II. ERANSKINA

Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak esleitzen dituen diru-laguntzak, Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeek finantza ezin ditzaketen eta pertsonentzat benetako edo balizko arriskuak eragiten dituzten aurreikusi gabeko eta larrialdiko lanei aurre egiteko direnak, arautzen dituzten oinarri orokorrak.

### 1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea da Arabako Foru Aldundiko Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Sailak aurrekontu-kredituen kontura eta larrialdiko aurreikusi gabeko gastuei eta larrialdiko lanei aurre egiteko esleitzen dituen diru-laguntzak jasotzeko eskakizunak, betebeharrak eta prozedurak ezartzea.

Aurreikusi gabeko gastuak izango dira berehala betetzeko betebeharrak ekonomikoak izanda ere Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeak finantzatu ezin ditzaketenak, aurrekontuan dagokion kreditua ez dutenak eta, gainera, pertsonentzat benetako edo balizko arriskua eragiten dutenak.

Diruz laguntzekoak izango dira ondorengo ekintza hauek eragindako betebeharrak ekonomikoak:

- a) Gertakari naturalek eragindako kalteak.
- b) Arauen aldaketek, eskumenak bereganatzeak edo herri administrazioen ebazpenek ezarritako betebeharrak.
- c) Lanen estankotasun, egonkortasun eta segurtasunerako beharrezkoak diren lanen aldaketak, hasiera batean ezin aurreikusi daitezkeenak.
- d) Aurrekontuan aurreikus ezineko beste gertaera batzuk, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik edo ezinbestean sortutakoak.
- e) Etxebizitzen edo bertan bizi diren pertsonen egonkortasuna babesteko beharrezkoak diren bestelako egoerak.

Ezein kasutan ez dira kontuan hartuko interesak, emendatzeak, administrazio-zehapen edo zehapen penalak, ez eta prozedura judizialeko gastuak ere.

Diru-laguntzen xede den jarduketa egiten denean, tokiko erakundeak, ahal dela, oztopo arkitektonikoak eta komunikabidezkoak ezabatzeke ahalegina egingo du, hala badagokio.

### 2. Erakunde onuradunek bete beharreko eskakizunak

Arabako Lurralde Historikoko udalerrri eta kontzejuek jaso ahalko dituzte deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak.

Pertsona onuradun izan ahalko dira diru-laguntza jasotzeko oinarri den egoeran dauden pertsona juridikoak edo oinarri arautzaile hauetan eta deialdian aurreikusitako zirkunstantzietan daudenak eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, Arabako Lurralde Historikoko diru-laguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak eta deialdiak ezarritako eskakizunak betetzen dituztenak.

### 3. Diru-laguntzen zuzkidura eta zenbatekoa

Diru-laguntzen programarako gehieneko zuzkidura 1.500.000,00 eurokoa izango da, eta Arabako Foru Aldundiaren 2018rako aurrekontuko "10.2.98 1700 762.90.05 Larrialdiko lanak" aurrekontu-partidaren kontura finantzatuko da.

Diru-laguntza diruz laguntzeko modukoa den aurrekontuaren %100ekoa izan ahalko da. Gehieneko diru-laguntza ez da 500.000,00 eurotik gorakoa izango tokiko erakundeko.

### 4. Eskaerak aurkezteko epea

4.1. Deialdi honen xede diren diru-laguntzak deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eskatu ahalko dira, Programaren indarraldia amaitu arte; indarraldiaren amaiera ondorengo zirkunstantzia hauetan lehena ematen denean gertatuko da:

a) Jasotako eskaera kopurua dela-eta, aurrekontua amaitzea, adostu litezkeen aurrekontu-handitzeak barne.

b) Deialdia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik 2018ko abenduaren 31ko 23:59etara arteko epea amaitzea.

Aurrekontu gordailua bukatzen baldin bada, [www.araba.eus](http://www.araba.eus) webgunean argitaratuko da.

Eskaerak derrigorrez Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan aurkeztu beharko dira.

Programa amaitutakoan, ez da eskari gehiagorik onartuko.

4.2 Eskaera motibatuarekin batera, laugarren oinarri orokorrean adierazitako dokumentuak aurkeztuko dira, nahitaez.

4.3 Nolanahi ere, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak beharrezko deritzon informazio osagarria eskatu ahalko du, aurkeztutako eskaerak ulertu eta aztertzeko.

4.4 Eskaerak ez badituzte Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailaren eskakizunak betetzen, interesdunei eskatuko zaie hamar egun balioduneko epean falta diren agiriak aurkezteko. Adierazitako epean agiri horiek aurkeztu ezean, eskaerari uko egin diola ulertuko da, eta, beraz, eskaera artxibatu egingo da. Dagokion dokumentazioa osatzen denean joko da eskaera behin betiko aurkeztu eta erregistratuzat, ondorio guztietarako.

4.5 Jakinarazpenetarako helbidea espresuki adieraziko da.

4.6 Diru-laguntzak jasotzeko eskaerak aurkezteak deialdi honetan ezarritakoa espresuki eta formalki onartzea dakar.

### 5. Deialdiaren ebaztea

5.1. Prozedura bideratzeko organo eskuduna Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzua izango da.

5.2. Balorazio Batzorde batek aztertuko ditu eskabideak; Lurralde Orekaren zuzendaria izango du buru, eta Lurralde Orekaren Zuzendaritzari atxikitako teknikari bat kide; Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuko burua izango da idazkari.

Balorazio Batzordeak oinarrietan eta deialdian ezarritako eskakizunak betetzen dituzten eskaerak aztertuko ditu, eta txosten bat emango du, betetzearen emaitza zehaztuz eta eskabideen artean hurrenkera bat ezarri sarrera-hurrenkeraren arabera.

5.3. Ez da egongo entzunaldiko izapiderik, ebazpena emateko ez baitira aintzat hartuko entitate onuradunek aurkeztutako gertaerak eta agiriak baino.

5.4. Toki Administrazioaren eta Larrialdien Zerbitzuak proposaturik, organo eskudunak bi-dezkoa den ebazpena emango du, hiru hilabeteko epean gehienez, eskaera sartzen denetik aurrera. Epe horretan esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, entitate onuradunek ezetsizat jo ahal izango dute eskaera.

5.5. Eskaera bakoitzari dagozkion izapideak bete eta gero, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatuari aurkeztuko zaizkio, eta hark ebartziko ditu dagokion Foru Aginduaren bidez, zeinak amaiera emango baitio administrazio bideari.

5.6. Diru-laguntzak emateko ebazpenean jaso beharko da diru-laguntza zein entitate onuraduni eman zaien, eta espresuki adierazi gainerako eskaerak ezetsi egin direla.

5.7. Ebazpen horretan, baiezkoa bada, diru-laguntzaren zenbatekoa adieraziko da, eta bai ere ordaintzeko modua, zer baldintzekin esleitu den, lanak gauzatzeko epea eta lana ezarritako epean bete ezean zer ondorio izango diren; bestalde, aurrerakin gisa edo konturako entrega gisa ordaindu ahal izango da esleitutako diru-laguntza, toki erakundeak dagokion kontratua esleitzen duen unean.

5.8. Ebazpen hori erakunde onuradunei jakinaraziko zaie urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.9. Ebazpenak administrazio bidea agortuko du. Haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahalko da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duenak, 8. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, bi hilabeteko epean ebazpena jakinarazten denetik aurrera.

Zuzenean aurka egin ezean, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorritik.

5.10. Onuradunen batek uko egiten badio diru-laguntzari, diru-laguntza eman ahal izango zaie oinarri honen bosgarren atalean ezarritako lehentasun ordenaren arabera hurrengoak diren toki erakundeei. Azkenean deialdiari esleitutako diru zenbatekoa muga izango da.

## **6. Egikaritze-epea eta betebeharren aitortzea**

6.1. Diru-laguntzaren xede den proiektua edo ekintza erabat egikarituta eta betebeharrak aitortuta egongo dira 2019ko uztailaren 31 baino lehen.

6.2. Aparteko kasuetan eta alde zuzenetik dagokion justifikazioa onartuta, Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Sailak egikaritze eta betebeharrak aitortzeko epea luzatu ahalko du; luzapen horren iraupena zirkunstantzien arabera ezarriko da, eta 6 hilabetekoa izango da gehienez ere, hasierako epea amaitu aurretik interesdunak eskaera justifikatuta.

## **7. Diru-laguntzen ordainketa eta justifikazioa**

Ordainketak nominatiboak izango dira, onuradun bakoitzaren aldekoak.

Diru-laguntzen ordainketa osoa erakundeak lan-kontratua esleitzeko kontratua edo ebazpena aurkeztzen duenean egingo da. Balizko itzulketak tokiko erakunde bakoitzaren Arabako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtseko partaidetzen eraginpean geratuko dira.

Diru-laguntzen justifikazioa justifikazio-kontu erraztu bat izango da, eta ondorengo hauek edukiko ditu:

Memoria bat, justifikatuz diru-laguntza ematean ezarritako baldintzak nola bete diren eta adieraziz gauzaturako jarduerak eta lortutako emaitzak.

Jardueraren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatu bat. Zerrendan, hartzekoduna, gastuen dokumentuaren edo fakturaren zenbakia, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data agertuko dira. Faktura edo dokumentu originalak edo kopia konpultsatuak aurkeztu behar dira, bai eta dagozkien ordainketa-egiaztagiriak ere, 1.000 eurotik gorako gastuetan.

Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten bestelako diru-sarrera eta diru-laguntzen xehetasunak, zenbatekoa eta jatorria adieraziz.

Hala badagokio, itzulketaren ordainketa gutuna, aplikatu ez diren soberakinen kasuan; baita horietatik eratorritako interesena ere.

Aurreko 2) atalean jasotakoaz gainera, diru-laguntza ematen duen organoak egiaztagirien %10 konprobatuko du laginketa tekniken bidez, eta ehuneko hori frogagiri guztietara zabaldu ahalko da, intzidentziak nabarmenak badira.

Justifikazio-kontua aurkezteko azken eguna 2019ko urriaren 31 izango da.

#### **8. Diru-laguntza galtzea**

Onuradunek galdu egin ahalko dituzte deialdi honetan emandako diru-laguntzak, aldez aurretik espedientea hasita, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzkoak, eta azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, diru-laguntzenak, ezarritako kasuetan.

#### **9. Publizitatea**

Deialdi hau Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

#### **10. Azken klausula**

Oinarri orokorretan eta deialdi honetan xedatu ez den edozertarako, 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoaren diru-laguntzei buruzkoa, eta diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aplikatuko dira, aplikagarri zaizkien gainerako araudiekin batera.

**III. ERANSKINA**

Diru-laguntza lerroa: larrialdiko lanetarako diru-laguntzak

Lehentasun estrategikoa: inbertsioen Berreskuratzea eta Lurraldearen Oreka

Ardatz estrategikoa: 7. Lurraldearen Oreka aurrerapena

Helburu estrategikoa: 7.5. Landa azpiegituren hobetzea

Saila: Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saila

Aurrekontu-partida: 10.2.98 1700 762.90.05 Larrialdiko lanak

2018	2019	2020	GUZTIRA
1.500.000,00	0,00	0,00	1.500.000,00

Diru-laguntzen xedea:

Aurreikusi ezinezko egoerak izategatik, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeek finantza ezin ditzaketen aurreikusi gabeko gastuei eta larrialdiko lanei aurre egiteko ekintzak.

Onuradunak: Arabako udalerrri eta kontzejuak.

Esleipen-prozedura: lehia askea.

Diru-laguntzen oinarritzko lerroak:

a) Gertakari naturalek eragindako kalteak.

b) Arauen aldaketek, eskumenak bereganatzeak edo herri administrazioen ebazpenek ezarritako betebeharrak.

c) Lanen estankotasun, egonkortasun eta segurtasunerako beharrezkoak diren lanen aldaketak, hasiera batean ezin aurreikusi daitezkeenak.

d) Aurrekontuan aurreikus ezinezko beste gertaera batzuk, aurreikusten zailak diren arrazoiengatik edo ezinbestean sortutakoak.

e) Etxebizitzen edo bertan bizi diren pertsonen egonkortasuna babesteko beharrezkoak diren bestelako egoerak.

Baterako finantzazioa: ez dago.

Jarraipen erregimena eta adierazleak: ez dagokio.